

KOMUNIKATU BERRIA

Bazkide estimatua:

Joan den asteazkenean, abenduaren 15ean, Lehendakariaren abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua indarrean sartu zenetik, bazkide guztiei **Europar Batasunaren Covid Digital Ziurtagiria** erakustea eskatzen ari da, Klubaren barruko espazioetara sartzeko.

Kontxako instalazioetan sartzeko prozesuak arintze aldera, asteartetik, abenduaren 21etik, aurrera eta behin ziurtagiria erakutsita, instalazioetarako sarrera gaitu da bazkidearen eskumuturrekoa eta/edo txartela erabiliz, hurrengo sarbideetan berriro erakutsi beharrik izan ez dezan.

Ziurtagiria erakusteari uko egin dioten bazkide batzuekin gorabehera batzuk izan direnez eta batzuk ziurtagiria gabe sartu direnez, Zuzendaritza Batzorde honek, 2021eko abenduaren 27an egindako bileran, gertatutako gorabeherak baloratu ditu, eta beharrezkotzat jo du Covid Ziurtagiriaren eskakizuna betetzeari eta hartu beharreko balizko neurriei buruzko akordio bat hartzea.

Zehazki, eta kontuan hartuta indarrean dagoen osasun-araudia bete behar dela eta bazkide eta erabiltzaile guztiak babestu behar direla, Zuzendaritza Batzorde honek honako hau erabaki du:

Indarrean dagoen osasun-araudia betetzen jarraitzea, gaur egun lehendakariaren abenduaren 14ko 47/2021 Dekretuan ezarritako Covid ziurtagiriaren eskakizunari dagokionez.

Bazkideren batek klubeko langileei ziurtagiria erakutsi gabe instalazioetara sartzen bada, polizia laguntza eskatuko da.

Denek jakin dezaten jakinarazten da.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

